

2010eko URTARRILAREN 28ko UDALBATZARRA
PLENO DE 28 DE ENERO DE 2010

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

**AMAYA TELLECHEA INDA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTES-
 TEBAN GUELBENZU, RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN
 MATXIKOTE (2. puntuan), ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M^a SOL MARGARITA
 TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

**RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA (senidearen eritasuna / enfermedad de familiar)
 ALFREDO GOYENECHÉ INÉS.**

Tokia: BERAko Herriko Etxea.

Eguna: 2010-01-28

Ordua: 20:35

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 28-01-2010

Hora: 20:35

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTE-
 RIOR.-**

**2009ko abenduaren 17an egindako bilera-
 ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
 DUTE.**

**Vista el acta de la sesión celebrada el día 17 de
 diciembre de 2009, por unanimidad SE A-
 RUEBA**

**2.- 2010. urteko AURREKONTU OROKO-
 RRA ONESTEA.**

**2.- APROBACIÓN PRESUPUESTO GENE-
 RAL 2010.**

*Kontuhartzaileak aurrekontuaren laburpena
 egin du eta horren ondoren, honako adieraz-
 penak egin dira:*

*El interventor resume el contenido del presu-
 puesto y, seguidamente, se realizan las si-
 guientes intervenciones:*

Helena Santesteban:

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean aurrekontuan onartu dute eta gastuak igo dituzte.

Alkatea:

Nafarroako Gobernuak aldatu behar du Toki Administrazioak finantzatzeko eredua, herriarren zergengatik gero eta gutxiago bueltatzen diete udalei. Finantzatzeko eredua aldatu ez den bitartean Udalak ezin dira gestionatu.

Baita ere, proposatu du lur salmentako diru sarrerak igotzea eta mendiko salmentan zerbait jartzea merkatua aldatzen hasi behar omen delako. Horrela, Euskara Mankomunitatean %20ko jaitsiera izan eta ez zen langileen despidorik izanen.

(Santiago Alzuguren zinegotzia bertaratu da.)

Helena Santesteban:

Ez da errealia diru sarrerak igotzea eta gastuak ezin dira jaitsi, aurrekontua minimo errealekin egin behar da, eta gero diru sarrera gehiago badira gehiago gastatzea posiblea izanen da.

Egon dira 2 hilabetetan eztabaidatzen eta ez dute lortu diru sarrera gehiagorik.

Alkatea:

Diru sarrerak errealak dira.

M^a Sol M. Taberna:

Lehen eginiko bileretan da orain ekarri den aurrekontua eta orain arte ez da deus ere erran oraingo proposamenari buruz.

Aurrekontua lan bileretan landu zen bezala onartzea proposatu du, gastu arruntak asko landu dira.

Ados dago, ere, Nafarroako Gobernuari buruz errandakoarekin baina aurtengo egoera horrela dago.

Jon Abril:

Lur salmentari buruz, ez dago ados herriaren ondasunak edozein modutan saltzea.

Helena Santesteban:

En la Mancomunidad de Servicios Sociales se ha aprobado el presupuesto y los gastos han aumentado.

Alcalde:

El Gobierno de Navarra debe modificar el modelo de financiación de las Administraciones Locales, cada vez se les devuelve a los ayuntamientos menor cantidad de los impuestos de los ciudadanos y mientras esto no cambie los ayuntamientos no se podrán gestionar. Igualmente, propone aumentar los ingresos por venta de terrenos y por venta de monte poner algo ya que el mercado parece que está cambiando. De este modo, en la Mancomunidad de Euskera se haría una baja del 20% y no habría despidos.

(Se incorpora el concejal Santiago Alzuguren).

Helena Santesteban:

No es real la subida de ingresos y los gastos no se pueden bajar. Hay que hacer un presupuesto de mínimos reales y, luego, si hay más ingresos será posible gastar más.

Han estado 2 meses analizando y no se han conseguido más ingresos.

Alcalde:

Los ingresos son reales.

M^a Sol M. Taberna:

El presupuesto que se ha traído ahora es el realizado en las reuniones anteriores y hasta este momento no se ha dicho nada sobre las propuestas hechas ahora.

Propone aprobar el presupuesto tal y como se ha trabajado en las reuniones, los gastos corrientes se han trabajado mucho.

Está de acuerdo, también, sobre lo Manisestado referente al Gobierno de Navarra pero la situación de este año es la actual.

Jon Abril:

Sobre la venta de terrenos, no está de acuerdo en vender los bienes municipales de cualquier manera.

Azkenean, lan bileretan egin zen aurrekontua onesteko bozketa egin eta onartu dute 6 aldeko botoekin (Aralar, EA eta EAJ-PNV) eta 3 aurka (Alkatea eta beste 2 zinegotziak).

Beraz, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 2010.eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektua, non Udal Aurrekontua eta "Isidoro Fagoaga" Musika Eskolarena sartzen baitira.

Ikusirik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 201.4 artikuluari jarraikiz Kontuhartzaitzak eta Idazkari-tzak egindako txostenak.

ERABAKI DUTE:

- 1) **2010.eko Aurrekontu Orokorra, arestian aipatutakoa, hasiera batez onestea.**
- 2) **Aipatu Aurrekontua, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**
- 3) **Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, Aurrekontua behinbetikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.**

3.- 2010. urteko MUSIKA ESKOLA ETA UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA.-

Idazkariak azaldu ondoren aurtengo plan-

Finalmente, se lleva a cabo la votación del presupuesto confeccionado en las reuniones de trabajo y se aprueba con 6 votos a favor (Aralar, EA y EAJ/PNV) y 3 en contra (el Alcalde y las otras dos concejalas).

Por lo que adoptan el siguiente acuerdo:

Visto el proyecto del Presupuesto General para el ejercicio de 2010, en el que se incluyen el Presupuesto del Ayuntamiento y el de la Escuela de Música "Isidoro Fagoaga".

Vistos informes de Intervención y Secretaría emitidos en cumplimiento de lo establecido en el artículo 201.4 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra.

SE ACUERDA:

- 1) Aprobar inicialmente el Presupuesto para el ejercicio de 2010, antes indicado.
- 2) Exponer dicho Presupuesto en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.
- 3) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública señalado en el punto anterior.

3.- PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL Y ESCUELA DE MÚSICA AÑO 2010.-

Tras explicar la Secretaria las modificaciones

tillan izandako aldaketak, aho batez, honako erabaki hartu dute:

Ikusirik, 2010. urterako Udal eta Musika Eskolako Langileen Plantilla Organiko espedientea.

Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:

"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".

Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:

"Nafarroako Administrazio Publikoek, e-bazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."

Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) 2010. urterako Eskola Musika eta Udal Langileen Plantilla Organikoa hasiera batez onestea.

2) Organismo autonomo eta Udaleko lanpostu guztiak eskuratzeko, nahiz funtzionarioenak zein kontratatuenak, euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea espedientean eta erabaki honetan adierazten den jakite mailaren arabera.

3) Aipatu plantilla, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez

en la plantilla de este año, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y de la Escuela de Música para el año 2010.

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconce y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vasconce sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento y Escuela de Música para el año 2010.

2) Establecer que para acceder a todos los puestos de trabajo del Ayuntamiento y organismos autónomos, tanto de personal funcionario como de contratado, el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el expediente y en este acuerdo.

3) Exponer dicha plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio

iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.

4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamazioz ez balego, plantilla behin-betikoz onestizat hartuko dela ohartaraztea.

4.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, 4. LURZORU URBANIZAGARRI EZ SEKTORIZATUKOA (SUNS4), BEHIN BEHINEKO ONESTEA.

Idazkariak gaia azaldu du eta, aho batez, erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzailea, 4. Lurzoru urbanizagarri ez sektorizatukoa (SUNS4), egiteko espedientea.

Proiektua: Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina, 2009ko martxokoa.

2009ko apirilaren 23an Udalbatzak espediente hau hasiera batez onartu zuen.

2009ko uztailaren 23an Udalak eginiko osoko bilkuran alegazio epea irailaren 15arte luzatzea erabaki zuen jabe batzuk eskaturik.

Jendaurreko epean hamar alegazio aurkeztu dira.

Ikusirik, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzaren Departamentuaren Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduaren Zerbitzuak emandako txostena, 2009ko

en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

4.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN SUELO URBANIZABLE NO SECTORIZADO 4 (SUNS4).

La Secretaria explica el tema y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto proyecto de modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el Suelo Urbanizable no Sectorizado 4 (SUNS4) del Plan General Municipal.

Proyecto: Redactado por el arquitecto Xabier Lopez de Uralde, de fecha marzo de 2009.

Con fecha 23 de abril de 2009 el Pleno aprobó inicialmente este expediente.

En el pleno celebrado el 23 de julio de 2009 el Ayuntamiento acordó ampliar el plazo de alegaciones hasta el 15 de septiembre a solicitud de varios propietarios.

En el plazo de exposición pública se han presentado diez alegaciones.

Visto informe emitido por el Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Departamento de Ordenación del Territorio y Vivienda de 22 de junio de 2009.

ekainaren 22koa.

Ikusirik, Landa Garapeneko eta Ingurumenarako Departamentuaren Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak emandako txostena, 2009ko abuztuaren 10ekoa.

Izanik, “Confederación Hidrográfica del Cantábrico” izenekoak aldeko txostena, urriaren 28koa (A/31/02695), eman duela.

Kontuan hartuz Xabier Lopez de Uralde arkitektoek aurkeztutako alegazioei buruz eta lehen aipatutako txostenei buruz eginiko eranskina, 2009ko azarokoa.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70., 71. eta beste artikulua batzuekin bat etorriz.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERA-BAKI DUTE:

1) Aurkeztutako alegazioei buruz eta lehen aipatutako txostenei buruz Xabier Lopez de Uralde arkitektoek eginiko eranskina, 2009ko azarokoa, onestea eta modu horretan jarritako alegazioei erantzutea.

2) Hori dela eta, Udal Plan Orokorren aldaketa egituratzailea, 4. Lurzoru urbanizagarri ez sektorizatukoa, (SUNS4), 2009ko martxokoa eta azaroko eranskina Xabier Lopez de Uralde arkitektoak eginak, behin behineko onestea.

3) Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura behin-betiko onar dezan espediente osoa bidaltzea.

4) Erabaki hau interesatuei bidaltzea dagoien arkitektoaren txostenaren kopiaekin batera.

Momentu honetan, 21:05ean, bilera gelditu

Visto informe emitido por el Servicio de Calidad Ambiental del Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente de 10 de agosto de 2009.

Siendo que la Confederación Hidrográfica del Cantábrico ha emitido informe favorable (A/31/02695).

Teniendo en cuenta el anexo de noviembre de 2009 redactado por el arquitecto Xabier Lopez de Uralde respecto a las alegaciones presentadas y los informes anteriormente citados.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, 71 y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por la mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

1) Aprobar el anexo sobre las alegaciones presentadas e informes antes citados, de noviembre de 2009, redactado por el arquitecto Xabier Lopez de Uralde y resolver las alegaciones en el sentido expresado en el mismo.

2) En consecuencia, aprobar provisionalmente la modificación de determinaciones de ordenación estructurante en el Suelo Urbanizable no Sectorizado 4 (SUNS4) del Plan General Municipal, de marzo y anexo de noviembre de 2009, redactados por el arquitecto Xabier Lopez de Uralde.

3) Remitir el expediente completo al Departamento de Ordenación del Territorio y Vivienda del Gobierno de Navarra para su aprobación definitiva.

4) Remitir este acuerdo a los interesados junto con la copia del informe del arquitecto que les corresponda.

En este momento, siendo las 21:05 minutos, el

du Alkateak 4. puntuan aretoan dauden interesatuek hitz egiteko eta 21:20an bilerari hasiera eman dio berriro.

Alcalde suspende la sesión para que intervengan los interesados en el 4º punto que están presentes en la sala, reanudándose a las 21:20 horas.

5.- 2006, 2007. 2008 ETA 2009KO KONTRIBUZIOAREN KITAPENEN AURKA DEUSEZTASUN-AKZIOA EGIKARITZEKO ETA KATASTROEN BALOREAK OFIZIOZ BERRIKUSTEKO ESKAERA: L. IRAZOQUI.

5.-SOLICITUD DE ACCIÓN DE NULIDAD DE LIQUIDACIONES DE CONTRIBUCIÓN DE LOS EJERCICIOS DE 2006, 2007, 2008 Y 2009 Y REVISIÓN DE OFICIO DE VALORES CATASTRALES: L. IRAZOQUI.

Idazkariak espedientea eta udal abokatuaren txostenaren berri eman du. Horren ondoren, aho batez, honako erabakia hartu dute:

La Secretaria informa sobre el expediente y el informe del abogado asesor. Tras ello, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Ikusirik 2009ko urriaren 30ean LOURDES IRAZOQUI ERRANDONEAK aurkeztutako idatzia non honako hau eskatu duen: 2006, 2007. 2008 eta 2009. urteetako Lurraldeko Kontribuzioen kitapenen aurka deuseztasun-akzioa egikaritu eta Berako Udal Planeko SNS 2 Sektorean sartzen diren lurzati baloreak, lurzoru urbanizagarri sektorizatuak bezala sailkatuak direnen baloreak, errebisatzea.

Visto escrito presentado el 30 de octubre de 2009 por Lourdes Irazoki Errandonea ejercitando acción de nulidad frente a las liquidaciones por contribución territorial urbana correspondiente a los ejercicios 2006, 2007, 2008, 2009 así como petición de revisión de valores de las parcelas clasificadas como suelo urbanizable sectorizado incluidas en el sector SNS 2 del Plan Municipal de Bera, solicitando incoación de expediente de revisión de oficio al amparo de lo dispuesto en los artículos 102 y siguientes de la Ley 30/1992 reguladora del régimen jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común con dictamen del Consejo de Navarra.

Horretarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 102. artikulua eta hurrengoei jarraikiz Nafarroako Kontseiluaren irizpenarekin, ofizioz berrikusteko espedientea irekitzea eskatu du.

Ikusirik, 2009ko abenduaren 29an Udal abokatuak eginiko txosten juridikoa eskatutako errebisioaren aurkakoa.

Atendido informe jurídico de fecha 29 de diciembre de 2009 evacuado por los letrados asesores municipales contrario a la revisión solicitada, así como informe técnico efectuado por la empresa encargada del mantenimiento del Catastro municipal y redactora de la Ponencia de Valoración "Catastros Estudio 5 SL" de fecha 24 de diciembre de 2009.

Ikusirik, "Catastros Estudio 5 SL" enpresak, Udal katastroa mantentzea egiten duenak eta Balorazio Ponentzia egin zue-nak, eginiko txostena, 2009ko abenduaren 24koa.

30/1992 Legearen 102. artikulua aipatzen duen Nafarroako Kontseiluaren irizpena eskatzeko berrikusteko espedientea ea bidali edo ez erabaki baino lehen, Lege horren 84. artikularekin bat etorri eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4.1.g) eta 53 artikuluei jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) Interesatuak eskaturik, 2006. urtetik 2009. urtera arte Lourdes Irazoqui Errandoneari Lurraldeko kontribuzioarengatik eginiko kitapenak eta eskatutako baloreen errebisioa egiteko ofizioz berrikusteko espedientea irekitzea.

2) 30/1992 Legearen 84.1 artikuluari jarraikiz 10 LAN EGUNEKO epea ematea Lourdes Irazoqui Errandoneari nahi dituen alegazioak, dokumentazioa eta justifikazioak aurkez ditzan.

Horretarako lehen aipatu den 2009ko abenduaren 29ko txosten juridikoa, berrikustekoaren aurka dagoena eta 2009ko abenduaren 24an "Catastro Estudio 5 SL" k eginiko txostenak erabaki honekin batera bidaltzea.

3) Lourdes Irazoqui Errandoneari erabaki hau bidaltzea, jakinik, izapide egintza denez, eta ez behin betikoa administrazio-bidean, 30/1992 Legearen 107.1 artikuluari jarraikiz ez dagoela helegitea tartekatzerik.

6.- TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO ETA ENPLEGURAKO ESTATUAREN FONDOAREN KARGURA BALIABIDEEN ESKERAK ONESTE.

Aho batez, erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, Tokiko Iraunkortasunerako eta

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 84 de la Ley 30/1992, antes de adoptar la decisión oportuna con relación a la remisión del expediente de revisión para su dictamen por el Consejo de Navarra a que se refiere el art. 102 de la misma Ley, y conforme a lo señalado por los artículos 4.1 g) y 53 de la Ley 7/1985 reguladora de las Bases del Régimen Local.

SE ACUERDA:

1.- Incoar a instancia de parte, expediente de revisión de oficio relativo a las liquidaciones por contribución territorial urbana correspondientes a los ejercicios 2006 a 2009 girados a Lourdes Irazoqui Errandonea así como a la revisión de valores solicitada.

2.- Conferir conforme a lo dispuesto en el artículo 84.1 de la Ley 30/1992 un plazo de DIEZ DÍAS HÁBILES a Lourdes Irazoqui Errandonea a los efectos de que formule las alegaciones y presente los documentos y justificaciones que estime pertinentes, dándole traslado del informe jurídico de fecha 29 de diciembre de 2009 referido en el cuerpo del presente acuerdo y que se muestra desfavorable a la revisión así como del informe de fecha 24 de diciembre de 2009 evacuado por "Catastros Estudio 5 SL".

3.- Notificar el presente acuerdo a D^a Lourdes Irazoqui Errandonea significándole que al ser un acto de trámite no definitivo en vía administrativa no cabe recurso alguno ex art. 107.1 de la Ley 30/1992.

6.- APROBACIÓN SOLICITUDES DE RECURSOS CON CARGO AL FONDO ESTATAL PARA EL EMPLEO Y LA SOSTENIBILIDAD LOCAL.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto el Fondo Estatal para el Empleo y la

Enplegurako Estatuaren Fondoa, 13/2009 Errege-Dekretuak sortua eta Lurralde-Lankidetzako Estatuaren Idazkaritzaren 2009ko azaroaren 2ko Ebazpenaren bidez arautzen duena.

Sostenibilidad Local creado por el Real Decreto 13/2009 y regulado por la Resolución de la Secretaría de Estado de Cooperación Territorial de 2 de noviembre de 2009.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Aipatu den Tokiko Iraunkortasunerako eta Enplegurako Estatuaren Fondoaren kargura honako eskaerak egitea:

1) Realizar las siguientes solicitudes con cargo al Fondo Estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local:

1.1) Gizarte interesetarako jarduketak, 79.726 euro:

1.1) Actuaciones de interés social, 79.726 euros:

- “Ricardo Baroja” Eskola Publikoa mantentzeko gastuak.

- Gastos de mantenimiento de la Escuela Pública “Ricardo Baroja”.

1.2) Obrak, ekipamendu eta beste inbertsioak:

1.2) Obras, equipamiento y otras inversiones:

INBERTSIOA / INVERSIÓN	ZENBATEKOA / IMPORTE (zergarik gabe /sin impuestos)	ZENBATEKOA / IMPORTE (zergak sarturik / impuestos incluidos)
- Eztegara Pilotalekua berritzea. - Rehabilitación del Frontón Eztegara.	76.868,34 €	89.167,27 €
- Administrazio elektronikoa. - Administración electrónica.	11.100,00 €	12.876,00 €
- Belandetako ekipamendua (erabilera aunitzetako lokala). - Equipamiento de Belandeta (local usos múltiples).	13.819,50 €	16.030,62 €
- Haurtzaindegiko obrak. - Obras en la guardería.	64.655,17 €	75.000,00 €
- Herriko Etxeko 2. solairua eta ganbara berritze energetikoa eta hornidura. - Rehabilitación energética y equipamiento de la planta 2ª y desván del Ayuntamiento.	107.788,89 €	125.035,11 €
OSOTARA / TOTAL	274.231,90 €	318.109,00 €

7.- “BERAKO HERRIKO ETXEKO OBREN PROIEKTUA (2. FASEA)” ETA INBERTSIOAREN EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA ONESTEA ETA

7.- APROBACIÓN PROYECTO OBRAS DE “REFORMA DE LA CASA CONSISTORIAL DE BERA (FASE 2)” Y DEL PLAN ECONÓMICO-FINANCIERO DE LA INVER-

OBRA FINANTZATZEKO KONPROMISOA.

Aho batez, erabaki hau hartu dute:

2009ko urriaren 5ean Nafarroako Gobernuak onartutako Toki Inbertsioen Planean “Berako Herriko Etxea berritzea. 2. Fase: erdi-sotoa, beheko eta lehenbiziko solairuak” en obra sartu du.

16/2008 Foru Legearen 16 artikulua eta 5/2009 Foru Dekretuaren 44. artikuluari jarraikiz.

ERABAKI DUTE:

1) “Berako Herriko Etxea berritzea. 2. Fase: erdi-sotoa, beheko eta 1. solairuak” en obra proiektua, 2009ko otsailaren 25ekoa, Carlos Urrutia arkitektoak egina, onestea.

2) 2010eko urtarrilaren 15ean Kontuhartzailetzak eginiko inbertsio honen ekonomia eta finantza plana onestea.

3) Obra honen finantziarioa 16/2008 Foru Legearen 7. artikuluko b), c), d) eta e) letretan aurreikusitako baliabideetako bat erabiliz osatzeko Udal konpromisoa hartzez; hain zuzen ere, inbertsioa Nafarroako Tributuak partaidetza funtsaren kargura edo beste erakunde publiko edo pribatuen ekarpenen bidez osorik finantzatzerik ez dagoen zatia osatzekoa.

4) Erabaki hau eta orain onetsi den dokumentazioarekin batera Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.

8.- 6/2010 EBAZPENA, URTARRILAREN 13KOA, BERAKO ALKATEAK EMANA, JAVIER M^a IRAZOQUI AGESTA, JOSE JUAN LANZ APEZTEGUIA ETA F^o JOSE MARTIN IRIGOYENEK JARRITAKO

SIÓN Y COMPROMISO DE FINANCIACIÓN DE LA OBRA.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

En el Plan de Inversiones Locales aprobado por el Gobierno de Navarra el 5 de octubre de 2009 se ha incluido la obra de “Reforma de la Casa Consistorial de Bera. Fase 2: semisótano, planta baja y planta primera”.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 16 de la Ley Foral 16/2008 y el 44 del Decreto Foral 5/2009.

SE ACUERDA:

1) Aprobar el proyecto de “Reforma de la Casa Consistorial de Bera. Fase 2: semisótano, planta baja y planta primera”, de 25 de febrero de 2009, redactado por el arquitecto Carlos Urrutia.

2) Aprobar el plan económico y financiero de esta inversión realizado por Intervención de fecha 15 de enero de 2010.

3) Manifestar el compromiso de este Ayuntamiento de financiar con algunos de los recursos previstos en las letras b), c), d) y e) del artículo 7 de la Ley Foral 16/2008 la parte de la inversión que no alcance la financiación con cargo al Fondo de Participación en los Tributos de Navarra o a aportaciones de otros organismos públicos o privados.

4) Remitir este acuerdo junto con la documentación ahora aprobada al Departamento de Administración Local.

8.- RATIFICACIÓN RESOLUCIÓN 6/ 2010, DE 13 DE ENERO, DEL ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE BERA, POR LA QUE SE NOMBRA ABOGADO Y PROCURADORA PARA DEFENSA EN EL RE-

206/2009 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAN (PROZEDURA ARRUNTAN) DEFENDATZEKO ABOKATUA ETA PROKURADOREA IZEN-DATZEN DITUENA, BERRESTEA.

Aho batez, erabaki hau hartu dute:

Ikusirik, Nafarroako Administrazio Auzitegiko Idazkariak bidalitako idatzia, 2009ko abenduaren 17koa, zeinen bitartez data berdineko probidentzia jakinarazten duen.

Probidentzi honen bidez, JOSÉ JUAN LANZ APEZTEGUIA, JAVIER MARÍA IRAZOQUI AGESTA eta FRANCISCO JOSÉ MARTÍN IRIGOYEN-ek Nafarroako Administrazio Auzitegiko 2009ko irailaren 23ko 5844. ebazpenaren aurka 206/09 zenbakidun Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa (prozedura arrunta) jarri dutela adierazten du.

Ebazpen honek José J. Lanz, Javier Irazoqui Agesta, Javier Martín, Juan M. Otamendi, Leyre Martín Tellechea eta José María Irazoqui Alkatearen 2008ko abenduaren 17ko ebazpenaren aurka (honek Hirigintza Hitzarmena onesten zuen 2007ko uztailaren 31ko Alkatearen ebazpenaren aurkako Berraztertze errekurtsoa ukatzen zuen) jarritako 9-0894 altxada errekurtsoa ebazten zuen.

Hori dela eta, 06/2010 Berako Alkatearen Ebazpenaren bidez errekurtsu honetan Udalaren interesak defendatzeko behar den abokatu eta prokuradorea premiaz izendatu zen, eta orain, Udalbatzak ebazpen hau berretsi egin behar du.

Hori dela eta. ERABAKI DUTE:

CURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO N° 206/2009 (PROCEDIMIENTO ORDINARIO), INTERPUESTO POR JAVIER Mª IRAZOQUI AGESTA, JOSÉ JUAN LANZ APEZTEGUIA Y Fº JOSÉ MARTÍN IRIGOYEN.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto escrito de fecha 17 de diciembre de 2009 remitido por la Secretaria del Tribunal Administrativo de Navarra por el que se notifica al Ayuntamiento la Providencia de la misma fecha, mediante la que se da cuenta de que JOSÉ JUAN LANZ APEZTEGUIA, JAVIER MARÍA IRAZOQUI AGESTA y FRANCISCO JOSÉ MARTÍN IRIGOYEN han interpuesto recurso contencioso-administrativo (procedimiento ordinario) nº 206/09 contra la Resolución número 5844 del Tribunal Administrativo de Navarra, de fecha 23 de septiembre de 2009, que resolvió el recurso de alzada nº 09-0894.

Dicho recurso fue interpuesto por José J. Lanz, Javier Irazoqui Agesta, Javier Martín, Juan M. Otamendi, Leyre Martín Tellechea y José María Irazoqui contra resolución de la Alcaldía del Ayuntamiento de Bera de fecha 17 de diciembre de 2008, desestimatoria de recurso de reposición interpuesto contra resolución de la propia Alcaldía de fecha 31 de julio de 2007, sobre aprobación de Convenio Urbanístico de Gestión.

Por Resolución 06/2010 de la Alcaldía se nombró, por urgencia, abogado y procuradora en el citado recurso y, ahora, procede la ratificación por el Pleno de la citada Resolución.

Por todo lo anterior, SE ACUERDA:

1) 06/2010 Alkatetzaren Ebazpena, urtarri-laren 13koa, Javier M^a Irazoqui Agesta, Jose Juan Lanz Apezteguia eta F^o Jose Martin Irigoyenek jarritako 206/2009 administrazioarekiko auzi-errekurtsoan defendatzeko abokatua Marcos Erro Martínez eta prokuradorea Ana Imirizaldu Padilla izendatzen dituen, berrestea

2) Erabaki hau Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegira bidaltzea.

9.- FUNVERAKO EGOERARI BURUZKO MOZIOA.-

Alkateak mozioa irakurri du eta ondoren, adierazpen hauek egin dituzte:

Helena Santesteban:

Funverari buruzko 3. mozioa da eta gaia asko tratatzeagatik ez da konpontzen. Hau, bere ustez, sindikatuen arteko borroka da, ezer ez moldatzen duena.

Nafarroako Gobernuari ikustarazi behar zaio zonaldeko egoera. Lehen egin ziren lan-mahaiak berrartu egin behar da.

Operatiboagoak izan behar dira eta irtenbideak atera.

Beste aldetik, Funverako langileei jarritako panpinak kentzea eskatu behar zaie, arreta deitzeko ongi egoten ahal da, baina, orain ez.

Alkatea:

Huelga bukatu dute eta despidoak badaude, beraz, ez da deus ere lortu. Udalaren eritzia nahiz fabrikako zuzendaritzari nahiz Nafarroako Gobernuari iritsi behar zaie.

Ez da sartu langileen erabakiarekin, huelgaren ondorengo balorazioa besterik ez du egin eta Fabrikari eta Nafarroako Gobernuari langileen errespetua eskatzea.

Jon Abril:

Mozioaren alde daude. Egoera kezagarria da eta Nafarroako Gobernuari industrializazio plan bat eskatu behar zaio, "zona de

1) Ratificar la Resolución de Alcaldía 06/2010, de 13 de enero, por la que se nombra abogado a Marcos Erro Martínez y procuradora a Ana Imirizaldu Padilla para defensa en el recurso contencioso-administrativo n^o 206/2009, interpuesto por Javier M^a Irazoqui Agesta, José Juan Lanz Apezteguia y F^o José Martín Irigoyen.

2) Remitir este acuerdo al Juzgado n^o 1 de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de Navarra.

9.- MOCIÓN SOBRE LA SITUACION DE FUNVERA.

El Alcalde lee la moción y, posteriormente se realizan las siguientes intervenciones:

Helena Santesteban:

Es la 3^a moción sobre Funvera y por tratar mucho el tema no se soluciona. Esto, en su opinión, es una lucha entre sindicatos que no soluciona nada.

Al Gobierno de Navarra hay que señalarle la situación de la zona, hay que retomar las mesas que se hicieron antes. Hay que ser más operativos y hacer actuaciones.

Por otro lado, hay que pedir a los trabajadores de Funvera que retiren los muñecos, como llamada de atención puede estar bien pero no ya ahora.

Alcalde:

Ha finalizado la huelga y hay despidos, por lo que no se ha logrado nada. Hay que hacer llegar la opinión del Ayuntamiento a la Dirección de la fábrica y al Gobierno de Navarra.

No se mete con la decisión de los trabajadores, no ha hecho más que una valoración tras la huelga y pedir respeto por los trabajadores a la fábrica y al Gobierno de Navarra.

Jon Abril:

Están a favor de la moción. La situación es muy preocupante y hay que exigir al Gobierno de Navarra un plan de industrialización

urgente reindustrialización” izenekoa Baztan-Bidasoa aplikatzeko.

Santiago Alzuguren:

Udalak elkarrekin egon behar dira eta erabaki baino lehen kontsultatu. Lehengo mahaiak berriro martxan jarri behar dira.

Agian, aukera berriak eta teknologia berrietan pentsatu behar da eta horretarako, langileek formakuntza egin behar dute.

Eztabaida ondoren, bozketa egin dute eta denek aldeko boto eman dute, baina EAk eta EAJ/PNVk egindako ñabardurekin.

Beraz, mozioa onartu dute, honako testua izanik:

FUNVERAKO EGOERA

declara a la zona de Baztan-Bidasoa como “zona de urgente industrialización”.

Santiago Alzuguren:

Los ayuntamientos deben de ir unidos y consultar antes de tomar decisiones. Hay que poner en marcha de nueva loas mesas anteriores.

Acaso hay que pensar en alternativas y tecnologías nuevas para lo que los trabajadores deberían formarse.

Tras la deliberación se somete a votación y todos se muestra a favor, aunque EA y EAJ/PNV con las matizaciones expresadas.

Por lo que se aprueba la moción que tiene el siguiente texto:

Astelehen honetan bukatu da Funverako langileek aintzinerara eramaki zuten greba. Funverako ERE honek izan duen bilakaera aztertu nahi dugu Berako udaletik.

Nafar Gobernuako industria departamentuan lan zerbitzuko zuzendariekin izandako bileran, hauek ERE honen araudia errespetatu bertze erremediorik ez zutela erran ziguten. Hala ere Nafar Gobernuak erabaki du kaleratua 47 izatea, ez 55 ez 20. Kopuru hori erabakitzean ulertzen dugu Nafar Gobernuak bazuela aukera kaleratze guttiago onartzeko nahiz eta beraiek erran eskuak lotuak zituztela. Erabaki honekin Gobernuak berriz ere enpresariaren alde egin duela nabarmen erran nahi dugu eta aurreko urteetan enpresa honetan inbertitutako diru publikoa inongo etekinik gabe galtzen utzi duela.

Bertzalde Funverako zuzendaritzaren jarrera ere salatu nahi dugu. Funverak 15.113.962€ ko “fondos propios” deiturikoak ditu, 2006tik 2008 urte bitarteko, 8.699.000€ko irabaziei esker bertzeren tartean. Datu hauekin ez dugu ulertzen enpresak langileekiko duen jarrera ikusirik hauei esker izan dituela irabazi hauek eta langileek behar izan denean enpresaren eskaera guzietan positiboki erantzun diotenean.

Azkenean Funveran lanean hasteko Akordioak bi puntu bakarrik ditu. Alde batetik 4 kontrato-relebo egitea (hitzarmenaren arabera eginak egon beharko lukete) eta bertze aldetik ebentualak kontratatzea kaleratuen zerrendatik enpresak behar duenean. Azken puntu honetan ere enpresak ez du deus ematen normala den bezala enpresak behar izanez gero lantegian esperientzia duten langileak hartuko bait ditu. Badakigu enpresak kontratu ebentualak egiten dituela; ez da behin-betiko kontratu bat ere lortu! Burutu den borroka eredugarria egin eta gero pena da horrelako emaitza eskaxekin lanera bueltatzea.

Guzti honen aintzinean Berako udalean puntu hauek onartzea proposatzen dugu:

1-Nafar Gobernuari eskatu ERE-n araudia berritu dezala langileak babesteko moduan, Funveran gertatutako berriz ere errepika ez dadin.

2-Aurkezten diren ERE guziak zorrotz aztertu ditzan.

3-Baztan-Bidasoa eskualderako industria plan bat martxan jartzea lanpostuak mantentzeko.

4-Funverako zuzendaritzari akordio honetan onartu diren konpromisoak gainditu ditzala langileei zor dien errespetuagatik, kalean gelditu direnak egoerak hobera egin bezain pronto behar diren baldintzetan kontratatuz.

5-Langile guzietan gure elkartasuna eta babesa adierazi izan duten portaera eta antzinera eraman duten borroka goraipatuz.

6-Mozio hau komunikabideei, herritarrei, Nafar Gobernuako lan departamentuari, Funverako zuzendaritzari eta Baztan-Bidasoa eskualdeko udaletxeei helarazi.

10.- AMIANTOARI BURUZKO MOZIOA 10.- MOCIÓN SOBRE EL AMIANTO.

Alkateak mozioa irakurri du.

El Alcalde lee la moción:

Jon Abrilek zera dio:

Gaia serioa da, eta afektatuei lan-eritasun bezala ez zaie errekonozitzen. Beste aldetik, ikusten du sailtasunik inbentarioa eta gastuetan.

Jon Abril manifiesta que el tema es serio y a los afectados no se les reconoce como enfermedad laboral. Por otro lado, ve dificultades en lo del inventario y los gastos.

Alkateak aipatu du horri buruz, sortu ahala habilitatzen ahal dela partida.

El Alcalde señala al respecto que en la medida que surjan gastos se puede habilitar un partida.

Denek mozioarekin bat egin eta onartu dute. Hauxe da testua:

Por unanimidad aprueban la moción cuyo texto es el siguiente:

MOCION SOBRE EL AMIANTO, AYUNTAMIENTO DE BERA

El amianto, debido a sus propiedades, ha sido ampliamente utilizando durante décadas en la construcción. Además, se ha utilizado también como aislante en barcos, vagones de trenes, aviones, centrales térmicas y nucleares, en electrodomésticos, en calderas, hornos y tuberías y en multitud de aplicaciones. Por tanto, lo podemos encontrar formando parte de los materiales de cualquier edificio, estructuras, aparatos o instalaciones, mobiliario urbano, etc...

Dependiendo del producto en el que se encuentre, el amianto puede estar presente en mayor o menor concentración y, por otro lado, según su friabilidad tendrá mayor o menor posibilidad de liberar fibras al ambiente, característica que determina en gran medida su peligrosidad.

Las consecuencias derivadas de la exposición al amianto para las personas son tristemente conocidas desde hace tiempo: cáncer de pulmón, mesoteliomas, cáncer de laringe y asbestosis, entre otras. Además, se sospecha de la influencia de la exposición al amianto en otros tipos de cánceres, entre ellos varios digestivos. Fue precisamente su carácter cancerígeno lo que propició que su importación, comercialización y utilización fuera prohibida en el estado español en el año 2002.

A raíz de la prohibición de su uso, en los diferentes estados europeos también se han tomado diversas iniciativas en torno a la detección y eliminación de este producto, así como a controlar la eventual exposición actual, al cuidado y reconocimiento de las personas afectadas (laborales o medioambientales), etc...

No obstante, a pesar de lo extendido de su presencia en el medio en el que vivimos y del peligro que puede conllevar para la salud de trabajadores y trabajadoras, usuarias y usuarios de cualquier instalación y población en general, no se han hecho inventarios para detectar el amianto que nos rodea y conocer cuál es su estado. Es precisamente en este ámbito donde las instituciones locales pueden jugar un papel importante que permita proteger la salud de las personas dentro de su ámbito geográfico.

Por ello, se propone al Pleno de la Corporación del Ayuntamiento de Bera la adopción del siguiente ACUERDO:

1º.- Se procederá a realizar, en el plazo máximo de un año, un inventario que permita conocer la existencia de amianto en construcciones, canalizaciones o cualquier otro elemento de la ciudad, así como su estado actual.

2º.- Se incorporará en la normativa que rige la concesión de licencias de obras y rehabilitaciones la exigencia de certificado de presencia/ausencia de amianto así como las normas de control para la manipulación, tratamiento, y eliminación de este producto, para los supuestos en que aparezca.

3º.- Se habilitará una partida presupuestaria para subvencionar la retirada de este material de cualquier tipo de edificación y/o elemento.

4º.- Instar al Gobierno de Navarra a que inicie las actuaciones necesarias para la elaboración de un inventario en el ámbito geográfico de toda Navarra.

11.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-

11.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

1) Bandoak: B30/2009 eta B1/2010etik B5/2010era.

1) Bandos: B30/2009 y del B1/2010 al B5/2010.

2) Ebazpenak: 2009ko abenduaren 11ko 256. ebazpenetik 2009ko abenduaren 31ko 274.era arte eta 2010eko urtarri-laren 11ko 1. ebazpenetik 2010eko urtarri-laren 21eko 13.arte.

2) Resoluciones: De la resolución nº 256 de 11 de diciembre de 2009 a la nº 274 de 31 de diciembre de 2009 y de la nº 1 de 11 de enero de 2010 a la nº 13 de 21 de enero de 2010.

12.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**12.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.****Ez dira burutu.**

No se producen.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:50ean.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:50 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre**IDAZKARIA/ LA SECRETARIA**
Pilar Chueca Intxusta